

Intxaurrondo

Euskal Astea Intxaurrondon

Urriaren 15ean Euskal Astea hasiko da Intxaurrondon, Plazara Goaz taldeak eta Donostia Kulturak antolatuta. Astebetez mota guztietako ekitaldiak egingo dira auzoan, hiltzaldietatik hasi eta kabaret ikuskizuneraino.

Koldo Ameztoi ipuin kontalariaren emanaldiarekin hasiko da astea, urriaren 15ean (22.00), astelehena. Ameztoik ipuinak, kantuak eta kondairak izango ditu ardatz Ipar Haizea auzo elkartearen egoitzan egingo duen emanaldian.

Egun berean, Intxaurrondo Berri kultur etxean, "Euskararen iragana eta geroa", Euskal Herrian Euskaraz taldearen erakusketa zabalduko da. (16.30). Hurrengo egunean, Larrotxeneko ikastaroetan egindako bideo lanak ikusi ahal izango dira kultur etxean bertan (20.00).

Hilaren 17an izenburu bitxia duen hitzaldia iragarrita dago Larrotxenen (19.30): "Euskaraz libertitzeko manerak. Hitz-aspertua". Hizlari Asisko Urmeneta marrazkilari nafarra ariko da.

Hilaren 18an, berriz, "Altza



Rita Aldai aktore donostiarren euskarazko kabaret ikuskizunarekin amaituko da astea.

"Hautsa Kenduz" bildumaren VI. liburuaren aurkezpenaren txanda izango da (19.30). Ondoren, Josu Tellabide etnologo donostiarrek "Altza, Egia eta Uliako zenbait etxe" izenburuko hitzaldia eskainiko du.

Asteburu oparoa


Astebururako egitarau potoloa antolatu da. Ostiralean musika izango da protagonista, izan ere, Bigirako neskek trikitixa emanaldia eskainiko dute

Hilaren 17an, Asisko Urmenetak hitzaldia eskainiko du

Intxaurrondo Zaharreko kaleetan (17.30). Egun berean, gauzez, kantu afaria antolatu da Artzak Ortzeok elkartean (21.00). Larunbatean ere, ez da ez musika eta ez dantzarik faltako. Batetik, Marta Olalderen Intxaurdantza taldeak "Txalaparta dantza" izeneko ikuskizuna eskainiko du, eta, bestetik, "Xoxo satorra" ipuin musikatuaz gozatzeke aukera izango da. Ipuin kontalari Andoni Aleman ariko da eta musikari, berriz, Fernando Ederra eta Iñaki Salvador. Emanaldiok Intxaurrondo Berri kultur etxean egingo dira 18.00etatik aurrera.

Azkenik, egun berean, gauzez, (22.30) Txiki tabernan, Rita Aldai aktore donostiarrek "La Arrabalera zuzen-zuzenean" izeneko euskarazko kabaret ikuskizuna eskainiko du. Euskal astea amaitzeko ikuskizun biribila, zalantzarik gabe.

ARISTEGI EZEIZA S.L.




AXULEIUAK • KOMUN-ONTZIAK • KANILAK • HIDROMASAJA
BAINU ETA SUKALDE ALTZARIAK • DUTXA-ITXITURAK
SAUNAK • HORMA-ARMAIRUAK • BAINU OSAGAIK

PROIEKTUAK • ERMANDATEAK • DEKORAZIOA
• BAINUGELA ETA SUKALDERAKO ERAIKUNTZA MATERIALAK

Zubieta 13 • 20007 DONOSTIA

e-mail: aristegi@euskalnet.net • TEL/FAX: 943 456001




BADIOLA

AUDIOLOGIA
PROTESIKOA

HERNANI 10, 1 A TEL / FAX: 943 427232 • 20004 DONOSTIA

- AGIRIDUN AUDIOPROTESISTAK.
- AUDIOLOGIAN AZKEN AURRERAPENAK (MOTA GUZTIENTAKO AUDIFONOAK).
- ZARATA ETA BAINU MOLDEAK.
- AKUFENOEN TRATAMENTUA.



Mikelete, 20

ANTIGUO
autoeskola



Tel.: 943-21 65 51